

## **OINARRI ARAUTZAILEAK**

### **1. Helburua.**

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak asoziazionismoa bultzatzen du gizartearen kohesioa eta herritarren partaidetza lortzeko metodo gisa, eta horregatik horrelako elkarteentzako diru-laguntzak aurreikusi ditu, beren oinarritzko funtzionamendua errazteko, eta halaber, irabazi asmorik gabeko elkarteek ingurunea hobetzen eta herri demokratiko baten balioak bultzatzen laguntzen duten jarduerak antolatzea ahalbidetzeko, horrek guztiak herritar orokorren bizi-kalitatea eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak aurreikusitako helburuak betetzen laguntzen baitu.

Oinarri hauen helburua irabazi asmorik gabeko Zerbitzu Sozialen arloan diharduten, edota onuradunak Hernaniko herritarrek direnean, elkarteei diru-laguntzak eta laguntza publikoak lehiaketa erregimenaren bidezko emateko modua arautzea da.

Laguntza horien helburua da elkarteen oinarritzko funtzionamendua erraztea eta herritar orokorren bizi-kalitatea hobetzeko egiten diren proiektu nahiz jarduerak bultzatzea.

Oinarri hauek udalak indarrean duen Diru-laguntzak Emateko Araudiaren 7. Artikuluan xedatutakoa garatzeko ematen dira.

### **2. Aurrekontua eta programak**

Deialdi honen helburuak lortzeko 35.000 euroko diru kopurua dago Hernaniko Udaleko 2025 urterako aurrekontuaren partida honetan: 1 02.481.01.230.01 2025 (6829)

### **3. Onuradunak.**

Diru-laguntza hauek Hernaniko Udalerriko esparruan beraien jarduerak garatzen edo betetzen dituzten elkarteak eskatu ahal izango dituzte, edota beren zerbitzuak hernaniarrei eskaintzen badizkiote. Oinarri hauen xede diren diru-laguntzen eremuak hurrengoak dira:

- a) Elkarteentzako diru-laguntzak, Zerbitzu-Sozialetan eta osasunaren arloan jarduerak egiteko
- b) Zerbitzu Sozialen eta osasunaren arloko elkarteak mantentzeko diru-laguntzak.

Entitateek indarrean dagoen legediaren arabera eratuta egon beharko dute, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda.

Onorio honetarako, irabazi-asmorik gabeko entitatetzat joko dira elkartearen helburuekin bat datozen ekintzak egin eta irabaziak elkarteen helburuetarako erabiltzen dituztenak.

### **4. Bazterketak**

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

- a) Diru-laguntzetarako Lege Orokorren (arazoaren 17ko 38/2003 Lege orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.
- b) Direnagatik edo duten helburuagatik Zerbitzu Sozialak sailaren jarduerekin inongo loturarik ez duten jarduerak.

c) Edozein motatako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskabideak, baita Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin eguneratuta ez daudenak ere. Diru-laguntza eskaerarekin batera, eskatzaileak, zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatu beharko du.

d) Ez dira aintzat hartuko aurreko edizioetan jasotako diru-laguntza justifikatzeko memoria entregatzeko dituzten jarduerak eta programak.

e) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeek edo pertsonen eskabideak.

f) Onuradunek, indarrean dagoen lege araudia bete beharko dute, besteak beste, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 legea. Hortaz, ez zaie diru-laguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeek sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, diru-laguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatuta geratuko da. Beraz, elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria konpromiso aktiboa duela ziurtatu beharko du **IV Eranskina** sinatuz.

## 5. Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera.

Eskaerak bi bidetatik egin daitezke:

- Aurrez aurre, HHZ- Herritarren harrera Zerbitzuan, udaletxeko beheko solairuan astelehenetik ostiralera: 08:00 – 13:30 (astearte eta ostegunetan, 14:30 – 18:30 ere)
- Internet bidez: [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) helbidean pasahitza erabilita

Eskaera-orriak Udal erregistroan sartu behar dira, eta honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da nahitaez.:

- a) Diru-laguntza eskabide normalizatua, betea eta bertan dauden aitorten guztiak sinatuta.
- b) Bestelako erakunde, organismo eta abarri diru-laguntzak lortzeko egindako eskaeren aitortpena, edota, halakorik balego, jasotzen dituzten dirulaguntzen aitortpena.
- c) Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua (2025. Urtekoa) Aurreko urteetan diru-laguntza jaso duten elkarteek Eusko Jaurlaritzan izena emanda jarraitzen dutenaren aitortpena.
- d) Udal Intereserako Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria.
- e) Eskatzaileak kontu korrontearen zenbakia eta kontuaren jabe dela erakusten duen aitortpena
- f) Zerga bidezko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta BEZ araubidea egunean edukitzearen aitortpena (I.Eranskina)
- g) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legearen inguruko aitortpena (II Eranskina)
- h) Dirulaguntzaren xede izango den jardueraren deskribapena, aurkeztutako programaren memoria zehaztua.
- i) Identifikazio Fiskaleko Kodearen dokumentuaren fotokopia (I.F.K.)
- j) Erakundeen estatutuak eta curriculumak: kideak, helburuak, egiten dituzten jarduerak, etab. Urte honetan zehar egin dituzten edo egingo dituzten jardueren zerrenda
- k) Subentzionatua izan nahi den programaren aurrekontua
- l) Eskaera egin duen entitateko arduradunaren NAN fotokopia.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentatuetako batzuk Hernaniko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, aurkeztutako proposamenari buruzko dokumentazioaz gain, udalak bestelako informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei, proposamena behar bezala baloratzeko.

## **6. Epeak**

Eskaerak aurkezteko epe bakarra izango da. Epea 60 egunekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetatik kontatzen hasita.

Ezarritako epeak nahitaez beteko dira, eta ez da salbuespenik izango.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 laneguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazio osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

Eskaeraren ale bat erakunde eskatzaileak jasoko du, eta bestea, Sarrera Erregistroan; hori arduratuko da Zerbitzu Sozialetara bideratzeaz.

## **7. Diruz lagunduko diren gastuak**

Diru-laguntza jaso ahal izango dute gizarte- eta osasun-zerbitzuen eremuekin lotura duten jarduerak.

Diru-laguntzarik ez dute jasoko Udalarekin aurretiaz hitzarmena lotuta duten entitate edo elkarteek, ezta udal jabetzako lokalaren erabiltzaileek.

## **8. Ebaluazioa**

Aurkeztutako eskaeren izapideak egitea Zerbitzu Sozialei dagozkio, eskaerak aztertu eta ebaluazioa egiteaz arduratuko baitira honako irizpide hauen arabera:

- a) Entitate eskatzaileak herri mailan frogatutako jarraipena eta egonkortasuna.
- b) Udalak Zerbitzu Sozialak garatzeko duen urteko programarekin lotura
- c) Proposatutako programa edo jarduera betetzen onuradun hernaniarrak izango diren pertsonen zenbatekoa
- d) Aurkeztutako programazioak herritar ororekiko izango duen zabalkundea
- e) Taldearen jarraipena bermatuko duen arduradunen izendapena
- f) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialekin koordinatzeko erabilitako bideak

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak, betiere justifikatuta baldin badago:

### **8.1. Gizarte-zerbitzuen arloan:**

- Hitzaldiak.
- Zabalkunderako urteko kanpainak. Azterketak.
- Formazio ikastaroen antolaketa.
- Biztanleriaren zenbait sektoreren aisialdia.
- Talde espezifikoek gizarteratzera zuzenduta dagoen populazioaren jardura sustatzeko ekintzak.
- Taldeekiko arreta osasun eta gizarte-zerbitzu arloaren barnean.

- Guztien onurarako diren ekintzak.

Erabakia hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, baina aurrez Zerbitzu Sozialak bere irizpena emango dute.

Eskatzaileak ebazpenaren berri jasoko du idatziz eta arrazoitua betiere jasotzekoak diren kasuetan honako hauek zehaztuko dira: diru-laguntzaren kopurua, ordainketa modua, zuritzeko modua eta oinarri hauetan zehazten diren beste hainbat baldintza eta betebeharrak.

## **9. Balorazio irizpideak**

Onartuko diren proiektuak hautatzeko, irizpide eta balorazio-muga hauek hartuko dira kontuan (100 puntura arte). Gutxienez 25 puntu lortzen ez duten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko. Memorian eta aurkeztutako programan ondo justifikatuta agertu beharko dira datuak.

### **A.- HARTZAILEAK (10 Puntu gehienez)**

- Gizarte-zailtasunak dituzten herritarrak -desgaitasun eta mendekotasun egoeretan-, baliabide ekonomiko mugatuekin eta gizarte-bazterketako edo babesgabetasuneko egoeran edo arriskuan, indarkeria matxista, adikzioak, etab.:
  - Adinekoak: 5 puntu
  - Osasun-arazoak dituzten herritarrak: 5 puntu
  - Hezkuntzarako eta zaintzarako orientabide orokorrak behar dituzten herritarrak: 5 puntu
  - Herritarrak, oro har: 5 puntu

### **B.- ELKARTEA (35 puntu arte)**

- Lankidetzaren Udako Zerbitzu Sozialekin
  - Iraunkorra 15 puntu
  - Puntuala 5 puntu
- Erakunde eskatzaileak gaian duen esperientzia
  - 5 urte edo gehiago 5 puntu
  - 5 urte baino gutxiago 2 puntu
- Emakumeen parte-hartzea gutxienez %40koa izatea elkartearen zuzendaritza-batzordean: 5 puntu
- Sentsibilizazio-proiektua garatzeko boluntarioen laguntza behar izatea: 3 puntu
- Gizarte-ekimeneko elkartearen arteko lankidetzaren sustatzea jarduerak egiteko: 3 puntu

### **c.- JARDUERAREN ERAGINA (65 puntura arte)**

- Zerbitzua Hernanin ematea (gehienez 30 puntu)
  - Donostialdean edo Buruntzaldean lokal iraunkor bat izatea edo bertara sartzeko aukera izatea: 15 puntu
  - Udalerrian bulego bat izatea, ordu batzuk emateko, edo lokalen bat izatea Hernanin aurrez aurreko zerbitzua eman ahal izateko.: 20 puntu
  - Bulego iraunkorra izatea Hernanin: 30 puntu
- Proiektuaren kalitatea, berrikuntza-gaitasuna eta garaiko beharrei erantzuteko ahalegina: 25 puntu, gehienez

- Udaleko zerbitzu sozialean berariazko esparruko eginkizunak osatzea: 4 puntu
- Genero-berdintasunaren ikuspegia eta irizpideak integratzea: 6 puntu

#### D.- BANAKETA ETA ZENBATEKOA

Diru-laguntza norgehiagoka erregimenean emango da, eta ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den urteroko deialdiaren bidez.

Laguntza-lerro bakoitzari diruz lagunduko zaion zenbatekoa dagokion deialdian finkatuko da. Nolanahi ere, arreta-proiektuen eskabide bakoitzaren kostuaren %80k ezingo gu gainditu honako zenbateko hau.

D.1.- Hernaniko onuradunen kopuruaren arabera zehaztuko dena. Kopuru hau ondo azalduta egon beharko du aurkeztutako memorian eta proiektuan.

- 40 onuradun edo gutxiago: 500€ gehienez eta 100€ gutxienez
- 41 eta 80 onuradun bitarteko: 700€ gehienez eta 100€ gutxienez
- 81 eta 500 onuradun bitartean: 900€ gehienez eta 100 € gutxienez
- 500 onuradun baino gehiago: 1200€ gehienez eta 100€ gutxienez

D.2.- Lortutako puntuazioaren arabera zehaztuko dena.

- 25 -50 puntu: 100€ gehienez
- 51-60 puntu: 200€ gehienez
- 61-70 puntu: 300€ gehienez
- 71-80 puntu: 400€ gehienez
- 81-90 puntu: 500€ gehienez
- 91- 100 puntu: 600€ gehienez

Onartu beharreko diru-laguntzak ehuneko berean murriztu ahal izango dira guztientzat, baldin eta aurrekontu-esleipen erabilgarriak zati batean baino ez baditu estaltzen hautatutako proiektuak.

Emango den zenbateko guztia inoiz ez da izango baimendutako gastua baino handiago.

#### 10.- Balorazioaren kudeaketa

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak eskaerak aztertu ondoren, eta egokia izanez gero dagokion txosten teknikoaren balorazioa egin eta gero, emakida-ebazpen bat egingo da horri buruzko erabakia hartzeko, eta bertan adierazita egongo da proposatutako eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa; horrez gain, zerrenda hori osatzeko kontuan hartu diren ebaluazio-irizpideak azalduko dira.

Onartutako zenbatekoa izango da diru-laguntza gisa emango dena eta eskaera egin duen entitate titularrari jakinaraziko zaio; era berean, entitate horrek jardueren garapenari buruzko informazioa emateko konpromisoa hartuko du, horien jarraipena egiteko eta laguntzeko.

Erabakia hartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da, Zerbitzu Sozialak proposamena egin eta gero.

## 11. Bete-beharrak

Diru-laguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak gehituta)

Eskatzaileak ebazpenaren berri jasoko du idatziz eta arrazoitua betiere. Jasotzekoak diren kasuetan honako hauek zehaztuko dira: diru-laguntzaren kopurua, ordainketa modua, zuritzeko modua eta oinarri hauetan zehazten diren beste hainbat baldintza eta betebeharrak.

Ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango dira, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta inolako ebazpenik eman ez bada, eskaera atzera bota dela ulertuko da.

Diru-laguntza emanez gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

- Diru-laguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan arrazoitzea
- Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzaileak egin beharreko finantzen-kontrolak erraztea
- Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.
- Diru-laguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera baten aldaketaren berri ematea.
- Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo diru-laguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira
- Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:
  - Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.
  - Herritar orori zuzendutako idatzizko komunikazioa (egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.
  - Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz. Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:
    - Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatzi
    - Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez
    - Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz
    - Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatzizUdaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.
- Ez onartzea, diruz lagundutako jarduera egingo den inguruan, publizitatean edo diru-laguntza jaso duten pertsona edo entitateek ekintza egiterakoan honelakoak ager daitezela: diru-laguntza ematen duen delegazioari dagozkion jarduera esparrutik kanpoko lema, adierazpen, ekintza, pankarta, eta abar.
- Hernaniko Udalak indarrean dituen berdintasun irizpideak betetzea

## 12. Ordainketa

Diru-laguntza jarraian adierazita dagoen moduan ordaindu daiteke:

- %70 diru-laguntza ematean
- Gainontzeko %30a ohiko kontuak aurkeztean eta, egokia bada, diru-laguntza jaso duen jarduera dokumentuen bidez ziurtatzean. Epea hurrengo urteko ekainaren 30ean bukatuko da.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetako teknikariak arduratuko dira dokumentu horiek egiaztatzeaz, eta egokia bada, Tokiko Gobernu Batzordeak ados dagoela adierazi eta udalaren kontu-hartzailetzara bidaliko du espedientea.

Dena den, erabakian zehaztuko da ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako laguntzaren berezitasunaren arabera.

## 13. Publizitatea

Diruz lagundutako jarduerari publizitatea egiten zaienean, jarduera bultzatu duen erakundeak Hernaniko Udalaren laguntza jaso duela adierazi beharko du, irudi korporatiboaren arauen arabera.

## 14. Justifikazioa

Diru-laguntzak dagokion ekitaldiaren barruan izango du justifikazioa, jarduera urte natural osoan zehar garatzen denean izan ezik; kasu horretan, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31ra zabalduko baita justifikazio-epea.

Entitate onuradunek ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko diote Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetan, dokumentuak Hernaniko Zerbitzu Sozialetan aurkeztuko dira, aurrez aurre edo telematikoki, horretarako gaitutako bitartekoen bidez.

- a) Diruz lagundu den programa edo jardueraren memoria xehatua.
- b) Sarreraren eta gastuen balantze ekonomiko xehatua.
- c) Fakturen zerrenda EXCELL formatuan.

- Soilik fakturak edota baliokideak. Ez dira gastu-oharrak onartuko.  
- Soilik diruz lagundutako jardueraren zuzeneko gastuak. Zeharkako gastuak, zein elkartearen gastu orokorrak edo egiturazkoak ez dira onartuko (aseguru, finantza gastuak, informatika...).

d) Egindako gastuen justifikazio fakturak, eta ordainketa egin dela justifikatzen duen dokumentazioa (kopiak bi kasutan). Zerrendan jaso den hurrenkera mantenduz eta agiri bakoitzari dagokion zenbakia jarriaz.

Fakturek gutxienez datu hauek izango dituzte:

- Zerbitzua ematen duenaren identifikazioa (izena, helbidea, IFK/NAN)
- Zerbitzua hartzen duenaren identifikazioa.
- Zerbitzuaren gaiaren identifikazioa.
- Zerbitzua egin zeneko eguna.
- Kopurua guztira.

e) Dokumentazio grafikoa (argazkiak, kartelak).

f) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzen zerrenda: zenbatekoa eta jatorria.

Laguntza jasotzen duen elkarte edo erakunde bakoitza hartutako laguntzaren hainbateko fakturak aurkeztera beharturik dago, eta halaber, idazki bat, adieraziz eskabidean esandako asmoa bete duela.

Batez ere herri honetako Gizarte Zerbitzuen garapenean laguntzen duten irabazte asmorik gabeko Elkarrekin zerikusia duten zenbait kasu berezitan, eta salbuespen gisa, egindako jardunaren zinpeko aitoren justifikatzailea onartu ahal izango da.

Betebehar horiek osatuko ez balira, onartutako diru-laguntza ez jasotzea ekarriko luke, eta aurrerantzean beste laguntzarik jasotzeko ezintasuna ere ekarri dezake.

## **15. Ez betetzea**

Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko unean erabakitako obligazioen bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, egokia bada, diru-laguntza itzuliko da, diru-laguntzak emateko udal araudiak aurreikusitako eran. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, diru-laguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz. Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

Hernanin, 2025ko abenduaren 22an